



Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako,
Ostalaritzako eta Turismoko Zinegotzigoa
Concejalía de Impulso Económico,
Comercio, Hostelería y Turismo



Donostiak Kultura eta Jaialdien Hiri gisa nazioarteko irudi turistikoa sustatuko du

- **Donostia Turismok, Hiriko Jaialdi nagusien laguntzarekin, Europako Hiriburutza 2016ren oihartzuna aprobetxatu du eta Irtenalditxo turistiko kulturalen eskaintza zabaltzeko Kultura eta Jaialdien Hiri gisa duen posizionamendua indartzeko.**
- **DSS2016EU-ren “Uda-gau bateko ametsa”, “Donostia Kutxa Kultur Festibala”, “Ikuskizunak Victoria Eugenia” eta “Museoetara familian” irtenalditxoek bat egin dute aurten Donostiako eskaintza turistiko kulturalarekin. Lehendik ere eskaintzen zituen Citybreak paketeak Heineken Jazzaldirako, Musika Hamabostaldirako, Zinemaldirako, Beldurrezko Asterako eta abarrerako.**
- **Kultura ihesaldiek turismoa sasoi altutik kanpo erakartzen dute eta kalitatezko turismoa sustatzen laguntzen dute. Bi ardatz nagusi dira Donostia Turismoaren Gida Planean.**

Donostia Turismo **Hiriko Jaialdi eta Baliabide Kultural nagusiekin koordinatzen da**, eta Kultura eta Jaialdien Hiri gisa duen posizionamendua sustatzearen aldeko apustua egiten du. Hain zuzen ere, hori da hiria sustatzeko 5 ardatzetako bat, gastronomiarekin, kirolarekin, helmuga premium/erromantikoa eta MICEarekin (kongresuen turismoa) batera.

Jaialdiak dira hiri honetako jarduera kultural sendoaren adierazle nagusiak, eta gainera, urtean zehar banatzen dira, **turismoa sasoi altuan kontzentratu ez dadin** lagunduz. Horixe da hain zuzen Donostia Turismoko Gida Planaren helburu nagusietako bat. Denboraldia urtarrilean abiatzen da, Dock of the Bay jaialdiarekin. Dferia dator martxoan; apirilean, Zinema eta Giza Eskubideen Topaketak, maiatzean Olatu Talka!, ekainean Surf Film Festibal, uztailan Heineken Jazzaldia, abuztuan Musika Hamabostaldirako, irailean Zinemaldia eta Kutxa Kultur Festibala, eta urri-azaroan Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea.

Victoria Eugenia ikuskizunak ikusteko eta Aquarium eta Eureka! Zientzia Museoetarako familiako irtenalditxoak ere eskainiko dira.



Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea
Semana de Cine
Fantástico y de Terror

donostiakultura.com



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPEAN CAPITAL OF CULTURE



Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako,
Ostalaritzako eta Turismoko Zinegotzigoa
Concejalía de Impulso Económico,
Comercio, Hostelería y Turismo



Donostia Turismok hiriko **baliabide turistikoekin sinergiak aprobetxatu** nahi ditu eta jakin-min kulturalak dituzten bisitariak erakarri nahi ditu, **kalitatezko turismoa eskainiz**, horixe baita bere Gida Planaren beste ardatz nagusia.

Ihesaldiak eta pakete turistikoak dira **CityBreak turismoa** erakartzeko interesgune nagusiak; hau da, hirian 2 edo 3 egun igarotzera etortzen diren bisitariak, batez ere asteburuetan edo zubietan urte osoan zehar.

Irtenalditxo Kulturalak eta Jaialdiak

Ihesaldi turistikoek hau biltzen dute: 2 gau ohea eta gosaria erregimenean, jarduera kultural bat, ikuskizunetarako sarrerak, Welcome Pack bat Donostiari eta Gipuzkoari buruzko informazio turistikoarekin eta abar..

Aurten, DSS2016EU, Donostia Kultura, Heineken Jazzaldiari, Musika Hamabostaldiari, Zinemaldiari, Donostia Kutxa Kultur Festibalari, Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Asteari, Aquariumari eta Eureka Zientzia Museoari esker, Donostia Turismoak, egun, ihesaldi hauek eskaintzen dizkio bisitariari:

- Victoria Eugenia Antzokira ihesaldia, Noetic, Labio de Liebre eta Solitudes ikuskizunetarako.
- Ihesaldi Kulturala familian Aquarium eta Eureka! Zientzia Museoa museoetarako sarrerarekin.
- Ihesaldia Donostiako Jazzaldira
- Ihesaldia Donostiako Nazioarteko Zinema Jaialdira.
- Ihesaldia Donostiako Musika Hamabostaldira
- Ihesaldia Donostia Kutxa Kultur Festibala
- DSS2016EU ihesaldia: Uda-gau bateko ametsa
- Ihesaldia Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astera

Informazio gehiago helbide honetan:

<http://www.sansebastianaturismo.com/es/ofertas/escapadas/festivales-y-cultura>

Hiria Kultura eta Jaialdien hiri gisa sustatzeko ahaleginean, Donostia Turismoak **Ihesaldiak sustatuko ditu Interneteko eta sare sozialetako kanpainen bidez**, eta turismo mota honetarako lehenetsitako 4 merkatuetan egingo du: **Espainia, Frantzia, Erresuma Batua eta Alemania**.



Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea
Semana de Cine
Fantástico y de Terror

donostiakultura.com



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPEAN CAPITAL OF CULTURE